

DROGETEN

ETURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 229. zkia. 2014ko abendua

A brown metal historical plaque with a decorative top featuring a bear silhouette and two stars. The text on the plaque reads: "BIRTHPLACE OF 'SILICON VALLEY' THIS GARAGE IS THE BIRTHPLACE OF THE WORLD'S FIRST HIGH-TECHNOLOGY REGION 'SILICON VALLEY.' THE IDEA FOR SUCH A REGION ORIGINATED WITH DR. FREDERICK TERMAN, A STANFORD UNIVERSITY PROFESSOR WHO ENCOURAGED HIS STUDENTS TO START UP THEIR OWN ELECTRONICS COMPANIES IN THE AREA INSTEAD OF JOINING ESTABLISHED FIRMS IN THE EAST. THE FIRST TWO STUDENTS TO FOLLOW HIS ADVICE WERE WILLIAM R. HEWLETT AND DAVID PACKARD, WHO IN 1938 BEGAN DEVELOPING THEIR FIRST PRODUCT, AN AUDIO OSCILLATOR, IN THIS GARAGE. CALIFORNIA REGISTERED HISTORICAL LANDMARK NO. 976 PLAQUE PLACED BY THE STATE DEPARTMENT OF PARKS AND RECREATION IN COOPERATION WITH HEWLETT-PACKARD COMPANY, MAY 19, 1989."

BIRTHPLACE OF "SILICON VALLEY"
THIS GARAGE IS THE BIRTHPLACE OF THE WORLD'S FIRST HIGH-TECHNOLOGY REGION "SILICON VALLEY." THE IDEA FOR SUCH A REGION ORIGINATED WITH DR. FREDERICK TERMAN, A STANFORD UNIVERSITY PROFESSOR WHO ENCOURAGED HIS STUDENTS TO START UP THEIR OWN ELECTRONICS COMPANIES IN THE AREA INSTEAD OF JOINING ESTABLISHED FIRMS IN THE EAST. THE FIRST TWO STUDENTS TO FOLLOW HIS ADVICE WERE WILLIAM R. HEWLETT AND DAVID PACKARD, WHO IN 1938 BEGAN DEVELOPING THEIR FIRST PRODUCT, AN AUDIO OSCILLATOR, IN THIS GARAGE. CALIFORNIA REGISTERED HISTORICAL LANDMARK NO. 976 PLAQUE PLACED BY THE STATE DEPARTMENT OF PARKS AND RECREATION IN COOPERATION WITH HEWLETT-PACKARD COMPANY, MAY 19, 1989.

A smaller brown metal plaque with a decorative border. The text on the plaque reads: "THIS PROPERTY HAS BEEN LISTED IN THE NATIONAL REGISTER OF HISTORIC PLACES BY THE UNITED STATES DEPARTMENT OF THE INTERIOR"

THIS PROPERTY HAS BEEN LISTED IN THE NATIONAL REGISTER OF HISTORIC PLACES BY THE UNITED STATES DEPARTMENT OF THE INTERIOR

**Sonia Souto,
teknologiaren hiriburuan**



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria.
Leidako Unibertsitatea eta Madril.
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.
Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.
Implantologia Masterreko Irakaslea.
Leidako Unibertsitatea.
Kirurgia Masterreko Irakaslea.
Salamanca Unibertsitatea.
Unibertsitate Institutuetako Irakasle gonbidatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutensean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL
clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Igone Amesti, Ibaia
Azagirre, Leire Elustondo,
Estibalitz González, Dorleta
Vidal eta Ekhi Velar.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Sonia Souto

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Pello Mugarza,
Valentin Mugarza,
Eskolabarri ikastetxea
eta Ioritz Rasero.

ARGAZKIAK:

Igone Amesti,
Ibaia Azagirre,
Sonia Souto,
Igor Mugerza,
Udal Liburutegia,
Ana Ortega,
Estibalitz González,
Eskolabarri ikastetxea,
Valentin Mugarza,
Dorleta Vidal
eta Ekhi Velar.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko ugaztunak

...Gure baserriarren ahotik

KATAGINETA *gineta común Genetta genetta*

Patari, pizti honek, isila delako-edo, gaua maite du ehizarako: karraskariak dira bere dietaren rankinean lehenengoetarikoak, baina ez die muzinik egiten hegazti, intsektu, untxitxo, oilo eta fruta helduari. Esaten dutenez, aurrengo entzun, gero ikusi eta azkenik usaindu egiten ditu bere harrapakinak. Egunak egonean ematen ditu, baketsu, arbola-zulo edo arrakalatutako hatxetan, batu-batu eginda. Baserri eta etxe-multzo txikietako auzokidea izan arren ere, behean gainean nekez ikusten da; aldiz, pinuen behetik gorakoa arin egiten du, bai horixe, batez ere txakur-aren batek aurrean hartu eta ikaratu bada! Narro dotore eta erakarrakoa, sasoi baten honek dirutxo egiten zuen eta harrapatu ahal izateko zepo hagindunak ipintzen zitzaizkion.



Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4	BOTEPRONTOAN16
Purificacion Olinga (Ekuatore Ginea)	Maribi Carrillo
ELKARRIZKETA5-7	KIROLZALE17
Igor Mugerza, ilustratzailea	Sonia Souto Silicon Valleyn
MALLABIAN ZER?8	IRITZIA18
Mallabituak eta Gabonetako egitaraua	"Gabonak boluntarioki"
MOTZEAN9	SALEROSKETAK19
Lapikotxiki, kantuz kulunkatzen	Saldu, erosi edo agurtu
ERREPORTAJEA10-11	ANTZINAKOAK.....20
Bizilagunak programa	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ESKOLEN TXOKOA15	KALEKO INKESTA21
Eskolabarriko ikasleen berriak	Gabonetatik zer ez zaizu gustatzen?
	AGENDA22
	Urtarrileko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Purificacion Olinga

Ekuatore Gineako barnealdeko herri batean jaio zen Purificación Olinga, baina ia bere bizitza osoa kanpoan egin du. Ermuan orain bere senarra dena ezagutu eta 20 bat urte daramatza gure herrian. Semea hemen izan zuen eta, gutxienez, Ermuan beste 20 urtez biziko dela kontatu digu.

- Ekuatore Ginean jaio, baina urte birekin etorri zinen. Zergatik?

Micomeseng orduan oso toki garrantzitsua zen: industrialia, lan asko zegoen... Nire aita hangoa zen eta, sistema patriarkalean bizi ginenez, familia osoa hara mugitu zen. Baina orduan Teodoro Obiang Nguemak estatu kolpea eman zuen Francisco Macias Nguema (bere osaba zena) boteretik kentzeko. Jendea kaleetan hiltzen zuten, fusilamenduak zeuden, herriak euren artean borrokatzen ziren... gerra zibila zegoen. Presidente berriaren herria, Mongomo, besteen gainetik zegoen eta horiek beste herrietako neskatxoak bahitu eta Mongomokoak balira bezala hezten zituzten herria handia eta oparoa izan zedin. Nire aitak ez zuen nahi niri hori gertatzerik. Orduan, Espainiako militar batekin ezkonduko izaba zahar batek lehen-gusu batzuentzat eta niretzat paperak konpondu eta Espainiara ekarri gintuzten. Horretarako, Gineatik



Kamerunera oihanetik joan eta han hegazkina hartu behar izan genuen.

- Eta zu urte birekin!

Nik ez dut ondo gogoratzen, baina baditut hainbat oroitzapen. Adibidez, gaur egun mendian ibiltzeari beldurra diot. Aitak kontatu zidan negar asko egin nuela. Ume askok egin genuen bide hura, baina gurasoek euren haurrak betiko ez galtzeko egin behar izan zuten hori. Mongomora joanez gero, akabo.

- Gineatik Ermura etorri zinen zuzenean?

Madrilera joan nintzen lehenik. Vallencasen egon ginen eta han igaro nuen haurtzaroa, mojen barnetegietan. Gero Mostoles eta Gasteizen ere bizi izan nintzen. 1997an Ermuan bizi zen izeba Trinirengana etorri nintzen hainbate-

tan eta, bisita horietako batean, gaur egun nire senarra dena ezagutu nuen.

- Orduan, hemen geratu zinen?

Bai. Orain dela 7 urte Madrilera bueltatu nintzen familia faltan botatzen nuelako, baina Ermuan nire familia sortu dut eta hemen ondo nago.

- Ekuatore Gineara bueltatu zara?

Bai, ezkondu nintzenean. Ederra izan zen.

- Hango ohiturak mantentzen dituzu?

Espainiako kolonia izan zenez, herrialde katolikoa da eta ohitura asko antzekoak dira. Hango jakiak egiten ditut, baditut arropa tipikoak, musika... Horrez gain, gure lurraldean Fang hizkuntza hitz egiten da, Fang-aita hango tribu nagusia.

Ekhi Velar

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Igor Mugerza, ilustratzailea:

“Ezingo nuke definitu, baina oso estilo pertsonala daukadala dio jendeak”

Eskolako koadernoak marraztetik, disko eta liburuen azalak eta komikiak egitera pasa da Igor Mugerza. Muturreko metalaren munduan Abigor bezala ezaguna, bere lanek ospea lortu dute musika mota horren zaleen artean eta bere bidea egiten dihardu bertan. Izaki mitologikoak, paisaia ilunak, antzinako parajeak... Igorrek mundu berriak sortzen ditu bere ilustrazioetan. Mundu berriak mundu zaharren eran. Iluntasuna lagun, metal musika ardatz hartuta. Bere lanak hobeto ikusi nahi izanez gero, www.artwanted.com/art/artaburu webgunean hainbat ilustrazio daude ikusgai.

-Zer edo zein da Abigor?

Pertsona arrunt bat, Igor Mugerza, ermuarra.

-Zergatik erabiltzen duzu ezizen hori?

Hasieran interneterako bururatu zitzaidan ezizena. Geroago, ezizen hori nire izenarekin batera lotzen hasi zen musika munduko nire kontaktu bat. Beraz, ez da nire kontua, baina egia esan ez zait batere ardua, oso ezizen interesgarria dela iruditzen zaidalako.

-Zer dago Abigor izan aurretik? Nolakoa izan da zure bidea?

Umetatik marraztea izan dut gustuko, nire denborapasarako jarduerarik garrantzitsuena izan da beti. Nerabe eta gaztaroen, niretzat marrazkiak egiteaz gain, jendearentzako hasi nintzen marrazten. Ikasle denboran marrazki pertsonalizatuak egiten nituen, bai paperean, bai lokaletako hormak zikintzen. Orain dela 15 bat urte internet munduan sartu eta hainbat web orrialdetan nire irudiak erakusten hasi eta, pixkanaka, musika taldeentzako lanak egiten hasi nintzen. Ez dut formazio artistikorik.

-Zer motatako lanak egiten dituzu?

Paisaia ilunak eta aitzinako itxura duten pertsonaia eta izakiak agertzen



diren irudiak egiten dituz gehien bat. Disko zein liburu azalak, komikiak baita ere... Figuren modelaketa ere gustuko dut!

-Enkarguz egiten dituzue lanak edo bururatzen zaituzenean zerbait sortu eta gero eskaini egiten duzue?

Enkarguak egiten dizkidatenean ahal bezain modu txukunean sortutako lanak egiten saiatzen naiz, baina gehienak sormen pertsonalak dira. Eta erakutsi egiten ditut, bai.

-Nolakoa izaten da zure lanen sortze prozesua? Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Lehenik eta behin, irudia garunean irudikatzen dut. Gero, irudi erreala sortzea da, orokorrean, gehien gustatzen zaidana.

-Teknika definitua daukazu edo edozertara moldatzen zara? Nolakoa esango zenuke dela zure estiloa?

Teknika ia guztiak probatu ditut, beraz, edozertara moldatu naitekeela esango nuke. Nire estiloa definitzeko ez naiz gai, hori bai, jendeak oso estilo pertsonala daukadala dio.

-Beste ilustratzaileengan fijatzen zara? Baduzu ilustratzaile kutunik?

Bai, hainbat ilustratzaile miresten ditut, eta gero eta gehiago gainera. Gaur egun artista kopuru kontaezina dago. Miresgarriak diren ehunka artista aurki ditzakegu estilo desberdinetan. Frank Frazetta eta Harold Foster zaharrak aipatuko nituzke, baina beste hainbat daude oso interesgarriak direnak, margolari klasiakoak barne.

-Ilustrazioak egiterakoan papera sentitzea edo teknologia berriak dituzu nahiago?

Desberdinak izanik, gauza biek dute bere denbora, baina orokorrean teknologia berriekin geratzen naiz.

“Teknika ia guztiak probatu ditut eta edozertara moldatu naitekeela esango nuke”






ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

-Zure lanak metal musikarenganako duzun afizioarekin batera eboluzionatu dute? Bata bestearen ondorioa izan dira?

Metal musika da gehien gustatzen zaidan musikamota. Horren barruan, orain dela 25 urte inguru, muturreko metala edo metal estremoaren deritzonaren jaiotza ikusteko zortea izan nuen. Horrekin erlazionatutako artea parekatua dela esan daiteke. Erdi aroan edo parebat mende atzerago baka-

rrik ikus zitezkeen irudi latzen berreskurapen moduko bat sortu zen, hainbat kasutan modu latzagoan. Beraz, demaseko inspirazioa nire moduko jendearentzako!

-Zure ilustrazioak dituzten musika taldeen disko batzuk aipatzerik bai?

Lau aipatuko ditut: Elfor talde bizkaitarraren 'Heriotz Sustriak' diskoa, Estatu Batuetako Church of Disgust taldearen 'Unwordly Summoning' lana, Witchclan bri-

"Merkatu gutxi dago Euskal Herrian. Eskaintza gehienak kanpotik datozkit"

taniarren 'The dark binding' eta, amaitzeko, Ouija aragoitarren 'Ave voluptatis carnis' diskoa.

-Nolako da ilustratzaileen panorama Euskal Herrian? Kanpora ateratzera behartuta ikusten duzue zuen burua? Badago merkaturik hemen?

Nire kasuan oso merkatu gutxi dago Euskal Herrian. Eskaintza gehienak kanpotik datozkit eta suposatzen dut gainontzeko ilustratzaile gehienaren panorama ez dela oso erakargarria izango. Eskerrak nire ogibidea ez denik!

-Ermuan bertan zure lana non dugu ikusgai?

Behin Infreñu tabernan erakusketa egin eta pieza batzuk saltzea lortu nuen, beraz, norbaiten etxean bakarrik ikusgai egongo direla uste dut! Horrez gain, Sffera izeneko Ermuko talde batentzat lan bat egin daukat eta diskoa tabernetan ikus daiteke.

-Zerbait marrazteko inspirazio moduan noizbait Ermua aintzat hartu duzu?

Sekula ez, baina ez zaidalako suertatu, ez gure herria maite ez dudalako. Hala ere, egitekotan, paisaia edo antzinako eraikinak bakarrik irudikatuko nituzke.

Ekhi Velar



AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

es
egolek
electrizitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

arral97.com

arral

Tel.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

GABONETAKO EGITARAUE**ABENDUAK 20, ZAPATUE****Futbito txapelketie (Prebenjaminak)**

Eskolan, 11:00etan

Antolatzaile: Mallabia F.T.

Mague

Herriko Tabernan, 18:30ean

Antolatzaile: Zaparrada Kultur Elkartie

ABENDUAK 21, DOMEKIE**Gabonetako ipuine**

Herriko frontoien, 18:00etan

Antolatzaile: Mendibil eta Jasokunde Abesbatzak

(Bete eskutitzie eta emon Olentzerori)

ABENDUAK 24, EGUAZTENA**Olentzero Mallabire dator!**

Plazan, 19:00etan

Antolatzaile: Zaparrada Kultur Elkartie

ABENDUAK 26, BARIKUE**Haur parkie**

Herriko frontoien, 11:30-13:30/16:30-19:30

Antolatzaile: Mallabiko Udala

ABENDUAK 27, ZAPATUE

Mendibil eta Jasokunde abesbatzak baserriz baserri

gabon-kantak kantatzen goiz eta arratsalde

Antolatzaile: Mendibil eta Jasokunde Abesbatzak

Kontzertua: Iزارo eta Dani

Herriko Tabernan, 23:00etan

Antolatzaile: Zaparrada Kultur Elkartie

ABENDUAK 28, DOMEKIE**Bigarren eskuko azokie**

Herriko frontoien, 11:00-14:30

Antolatzaile: Mallabiko Udala eta Herri Ekimena

ABENDUAK 30, MARTITZENA**Zohardia, Josu Muguruzari buruzko dokumentala**

Kultur Etxien, 19:00etan

Antolatzaile: Zaparrada Kultur Elkartie

ABENDUAK 31, EGUAZTENA**Arratsaldien herri poteue****URTARRILAK 2, BARIKUE****Frontenis maratonia (bikoteka)**

Herriko frontoien, 9:00etatik aurrera

Antolatzaile: Mallabia F.T.

URTARRILAK 3, ZAPATUE**Yinkanan, 11:00etan**

Antolatzaile: Mallabia F.T.

Ipuin kontalarixe

Herriko Tabernan, 18:30ean

Antolatzaile: Zaparrada Kultur Elkartie

ZINEMA Kultur Etxien

Urtarrilak 4, domekie, 16:30ean

Urtarrilak 6, martitzena, 17:00etan

(Antolatzaile: Mallabia F.T.)

MALLABITRUK ABENDUAN 28XEN

Abenduan 28xen Mallabiko III. Truke eta bigarren eskuko azokie antolatuko da Udala eta herri ekimenez. Frontoien izengo da eta goizeko 11:00etatik 14:30 ingurura arte egongo da zabalik. Bertara kanpotik etorritako 35 postu inguru egongo die, erabiltzen ez dituzten gauzak, zein birziklatutako produktuek saldu edo trukatzera. Horrez gain,

gure daben danantzat, soberako horrek trukatu ahal izateko lekue egongo da azokan horretarako egokittutako mahai-xekin. Azokiek irauten daben bittartien, Gorka Angulo graffitigileak mural bat marraztuko dau frontoi ondoko horman. Denok dukeguz soberan, alperrik edo erabiltzen ez doguzan gauza pilo bat etxien. Beste norbaiteri seguru ondo etorriko jakozela! Animatu eta parte hartu azokan!

**GABONETAKO IPUINA ETA OLENTZERO**

Abenduan 21ien Gabonetako ipuine antzeztuko dabe Mallabiko hiru abesbatzek herriko frontoien. Arratsaldeko 18:00etan izengo da eta guztire, Mendibil, Jasokunde eta Lagun Artean koruek batute, 50 bat abeslarik parte hartuko dabe. Bertan gabonetako kantuez gozatu, ipuin polit bat entzun eta gure dabenak Olentzerori kartie emoteko aukerie eukiko dau!

Igone Amesti
eta Ibaia Azagirre

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€), menua, bokatak, plater konbinatuak, pintxoak, kazolak, arraina eta txuleta parrillan (enkarguz)...

943 174 952
(asteartetan itxia)

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIA

ETXERA

Drogeteniturrri, 229 zkia.

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

Txikientzako kantuak

Estibalitz Gonzálezek Lapikotxiki, kantuz kulunkatzen liburuaren 2. argitalpenaren aurkezpena egin zuen Lobianon. Ikastaro praktiko bezala planteatua, abestietako batzuk ikasteko aukera izan zuten bertaratutako familiek. Lanaren ardatza 0-2 urteko umeei abesteko 38 kanta tradizional diren arren, bertan herriko hizkeran idatzitako ipuintxoak, puerikultura aholkuak, umeen berbetako hitzak edota hiztegitxo bat ere topatuko du irakurleak. Melodiak barneratzen joateko, ostera, DVD bat, ezin lagungarriago. Abestiok ez bakarrik lotarako: eskuekin jolasteko, jaten laguntzeko, txikia lastantzeko, kulunkatzeko eta batez ere elkarrekin gozatzeko balio dutela azpimarratu zuen egileak. Salgai dago 18 eurotan Maribel, Xiripot eta Quetzalen.



Santa Zezilia bandak 100 urte bete ditu

Zorioneko dago Santa Zezilia banda, izan ere, 100 urte bete ditu eta hainbat ekintza antolatu zituzten azaroan mendeurrena ospatzeko. Bandari buruzko argazki erakusketa egin zen Lobiano kultur etxean eta, ohitura denez, azaroaren 20an kalejira egin zuten herriko kolektibo musikalek Santa Zezilia eguna ospatzeko. Era berean, Alboka musika eskolako eta Txindurriko kideek Santa Zezilia jaialdia egin zuten bandaren omenez.



Ingeleseko ipuin kontaketa Udal Liburutegian

Udal Liburutegiak, herriko ikastetxeekin koordinatuta, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleentzako hainbat ingelesezko ipuin kontaketa antolatu zituen. Ekimen horren helburuak dira, irakurzaletasuna ahozko transmisioaren bitartez sustatzea eta ingelesaren ikaskuntza indartzea. Guztira 7 saio izan ziren. Saio batzuk Haur Liburutegian egin ziren, eta beste batzuk Sallabente Eskola eta Ongarai Eskolako liburutegietan. Ekintza horretan 150 umek hartu zuten parte gutxi gora behera. Patrick O'Malley mago eta ipuin kontalaria izan zen saioetako dinamizatzailea.

JUANITA IBAIBARRIAGA SARIAK BADITU IRABAZLEAK

Juanita Ibaibariaga ipuin eta erreportaje sarietako badiutze irabazleak. Bere XXI. edizioan, herriko eskoletako ikasleen partaidetza handia izan dute sarietako aurtengoan, baina nagusien erreportajeen atalean ez da saririk banatu. Honako hauek izan dira irabazleak: Oier Araiztegi (3. maila), Marta Lucena Muñoz (4. maila), Araitz Prieto eta Mateo Riesco (5. maila), Igor Piñero (6. maila), Mikel Ismael Kaye (DBHko 1. maila) eta Edurne Garrido Conde (DBHko 2. maila).

BELDUR BARIK ERMUA SARIAK BANATU DIRA

Beldur Barik Ermua lehiaketaren V. edizioko sariak banatu ziren azaroaren 25ean. 12tik 17 urtera bitarteko kategorian Aitor Ojea eta Leire Hurtadok jaso zuten saria batetik eta, bestetik, Leire Castelosek irabazi zuen. 18tik 26ra bitarteko artean, berriz, Nushu Gazte Feministak taldeko kideak izan ziren irabazleak. Lehiaketan parte hartu zuten egileen lan guztiak egon ziren ikusgai ekitaldian.

hamburguesería
TITANIC



*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



GOIENKALE Z/G
ERMUA
Tel. 943 030 112

MERKATU PLAZA 7
ARRASATE
Tel. 943 770 598

Proba-Leku

Neopaindegia - Estetika




Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42



Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454

sehiga.proteccionlaboral@gmail.com



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

Mundu bi mahai baten inguruan

Azaroaren 23an Ermuko hamalau familia bazkaltzeko batu ziren. Horrek, berez, ez dauka inongo berezitasunik, baina bai azalpen bat. Zazpi bikotetan banatuta, non familia batek beste bat bere etxean hartu zuen, bertako eta Ermuan bizi diren jatorri atzerritarreko hainbat familia mahai-inguruan batu ziren Bizilagunak programaren barruan.

Bizilagunak jardueraren helburua da gizarte eta kultura aldetik kolektibo desberdinetakoak izan arren, herri berean bizi diren familiak hartu-emanen jartzea. Horretarako, aldi bereko otorduak antolatzen dira bertako familia bat eta atzerriko beste bat elkartzeko. Beraz, Europa osoan, egun berean, herrialde bakoitzean bertako eta bertan bizi diren jatorri atzerritarreko familiak bazkaltzeko batzen dira. Baita Ermuan ere.

Aurtengoa bigarren aldia izan da Bizilagunak programarentzat Ermuan. Txekian SLOVO 21 elkarteak bultzatu-

tako Next Door Family - Inclusive Neighbourhoods programa oinarri moduan hartutako ekimena da Bizilagunak, eta SOS Arrazakeriak eta Ermuko Udalak aurrera eraman dute hemen.

Ane Enzunza Udaleko Inmigratio Teknikaria pozik dago ekimenak herrian izan duen erantzunarekin: "Oso egun ona igaro genuen". Iaz baino familia gehiagok hartu du parte aurten eta atera dituen ondorioak "oso positiboak" dira. "Parte hartzaile batek esan zidan bere amarekin 'flipatu' egin zuela", gaineratu du. Horrek balio handia du gaur egun Anerentzat, izan ere, "atzerritarren ingu-

ruko zurrumurru negatiboak gero eta ugariagoak dira, eta gizarteari atzerritarren irudi positiboa ematen saiatu behar gara".

Herrikideak izanik, bertakoen eta atzerritarren artean elkar ezagutza bultzatzea da Bizilagunak programak lortu nahi duena. Ane Enzunzak argi uzten duenez, ezagutza hori berebizikoa da aurreiritziak argitu eta, bide batez, uxatzeko. "Aurreiritziak emozioetan kokatzen dira, beraz, elkar ezagutu egin behar dugu aurretik inongo ezagutarik gabe finkatuta ditugun ideia horiek eror daitezken".

Janari goxoen artean batu ziren familiek euren errealtateak mahai gainean jartzeko aukera izan zuten. "Besteen kontuak zuzenean eta pertsonalki ezagutu ahal izan zituzten denek eta horrek zerbait mugiarazten du norberaren barrenean", azpimarratzen du Ane Enzunzak.

Khady eta Anaren familak

Khady Samb nahiko urduri zegoen bere Bizilagunak jaso aurretiko egunetan. Ea janaria gustatuko zaien, ea gustura egongo diren euren etxean, eta beste hainbat zalantza zituen buruan. Ana Orte-



ZK

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

J. LUCAS
PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

MUGA

KILOAK

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

ga eta bere familia (senarra, semea eta neskalaguna, eta ama) hartu zituen azaroaren 23ko zitan, eta Anak berba onak bakarrik ditu Khadyreki-ko. "Oso egun polita pasatu genuen".

Ermuan Bizilagunak programan parte hartu zuten hamalau familietariko bi izan ziren Khady eta Anaren familiak. Khady eta bere senar Assanek, 8 hilabeteko haurtxoarekin eta Khadyren lehengusua-rekin batera, entsalada eta euren herrialdeko hainbat jaki prestatu zituzten. Anaren berbetan, "goxoa zegoen dena. Hainbat arroz prestatu zituzten, oilaskoarekin eta abar, saltsa ezberdinak ere, eta dena oso ona zegoen".

Ardoa ere ez zen falta izan. "Bazkaria egin baino egun batzuk lehenago Khadyk galdetu zidan ea zein ardo erosiko zuen. Izan ere, iaz Gaztela Leongo elkartearen bikote linguistikoez urtero egiten dugun bazkarian parte hartu genuen biok eta nire senarrak ardoa edan zuela gogoratzen zuen. Gu ahalik eta erosoan egotea nahi zuen". Eta baita lortu ere. "Giro naturalean igaro genuen eguna. Gainera, eurek haur txikia edukita, errazagoa izan zen izotzaldia urtzea".

Ezagutza hesiak apurtzeko

Ana Ortega eta bere familierentzat ez da lehenengo aldia Bizilagunak programan. Iaz ere parte hartu zuten, baina orduan eurak izan ziren anfitrioiak. "Maliko bikotea etorri zitzaigun hiru semerekin eta oso esperientzia ona izan zen. Oraindik kontaktua mantentzen dugu". Khadyrekin ere berdin. "Eurek badituzte hemen pertsona ezagunak eta abar, baina horrela jende gehiago ezagutzen dute eta erreferentzia gehiago dituzte herrian".

Bertako eta jatorri atzeritarreko familien arteko bate-raketa horietan ezagutza zuzena ematen da, eta Ana Ortegak gauza bat azpimarratzen du: "Hemen askok pentsatzen dute kanpotik datozenak han oihanean txaboletan bizi direla. Batzuk agian bai, baina gehienak ez. Nik ezagutu ditudan senegaldar gehienak Dakarrekoak dira eta euren etxeetan ontzi-garbigailua, arropa-garbigailua, hozkailua eta denetarik daukate". Khady eta Assanek Ermuan daukaten etxea ere oso polita dela dio Anak, baina gaur egunean bizi den krisiak atzeritarrentzat karga bikoitza suposatzen duela. "Hemengoentzat egoera txarra bada, pen-



tsa nolakoa den kanpotarrentzat! Batzuk pentsatzen dute horrela bizitzeko, euren herrialdeetan berdin bizi daitezkeela; baina etxera bueltatzeko porrot egitea da. Orduan, hemengo egoera eta hango presioa jasan behar dute".

Zurrumurru negatiboek kalte handia egin diote bertako eta atzeritarren arteko erlazioei, eta Anaren ustez topaketa hauek asko laguntzen dute alde bien arteko ezagutza indartzeko. "Askok diote atzeritarrek ez direla integratzen. 'Eta zuk zer egin duzu integratu daitezen?', esaten diet nik. Beste bizilagunekin buelta bat emateko beti prest gaude, baina zergatik ez diogu ezer esaten etxe atarian egunero topatzen dugun atzeritarri?". Azken finean no-

labaiteko beldurra dagoela ondorioztatzen du; "baina kanpotik datozenek ere beldur itzela daukate. Iaz nire etxera etorri zen malitarrak zioen bera Ermura etorri zenean demaseko beldurra ziola edonorekin kalean topatzeari, dena mehatxua zela berarentzat. Guk ere horrela hartzen ditugu eurak, mehatxu moduan".

Ezagutzak, mahaia partekatzeko, berba elkartrukatzeko, lagundu egiten du Ana Ortegaren ustetan. Datorren urtera begira, berriz parte hartuko dutela ziurtatzen du. Azken finean, ermuarrak mahai-inguruan biltzea da kontua, bizilagunekin otordua elkarbanatzea. Kontatu dutenez, primerako osagaiak ez dira faltako. Ezta lagun arteko giroa ere.

Ekhi Velar



CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14



Montis DQ Mouth



Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotentzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarriketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma
48260 ERMUA (Bizkaia)
bobby.todoparatumascota@gmail.com



Sagarra
Gastro-Pub
Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810



BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua - Bizkaia



GABONETAKO E



IZAGIRRE

Calvin Klein
Punto Blanco
DIM
Armani
Playtex
Wonderbra
Freya...

Komentukua kalea 2 48260 Ermua - Bizkaia **943 170 277**

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale 9 · Ermua · 943170065
Zuloagatarren 7 · Eibar · 943531500

Poltsak, karterak, gerrikoak,
manikurak, maletak,
osagarriak eta opariak.

SAGARDUI
poltsak

BONO DENDA

943 170305
sagardui@sagardui.com

Zubiaurre 29
48260 Ermua (Bizkaia)

P AUTOSERVICIO DE CALZADO **PABLO** GINETAKO AUTOZERBITZUA

BONO DENDA

Sexto Centenario 19, ERMUA
943 17 54 09

F. PASCUAL Arane, 6
Tlf.: 943 20 61 64
Fax: 943 20 85 43
20600 EIBAR
(Guipúzcoa)

VIRGINIA PASCUAL
Zubiaurre, 36-38 (bajo)
Tel y Fax: 943 17 68 28
48260 ERMUA (Vizcaya)

MUEBLES DE COCINA INTERIORES

www.cocinaspascual.com

Marfil ILE-APAINDEGIA BAINO GEHIAGO


Osasuna Edertasuna Estetika

Goienkale 12 behea - ERMUA · 943 17 28 09

Oh la lá!
EMAKUMENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefonoa: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

EROSKETA GIDA



DESCUBRE-TÉ
Teak, kafeak, txokolateak,
eztia... eta baxera bereziak!!

Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia
943 03 15 81 · descubretenew@hotmail.com
www.teteriadescubre-te.com



Atsedenadiaz
hitz egingo
dugu?

Zubiaurre 32
(Ermua)
943 177 041



optika
itze

Probaleku 7 · Ermua
943 17 46 51



YONARI
bisuteria eta osagarriak

Zorionak eta
urte berri on
gure bezero
guztiei!!

BONO DENDA Erdikokale 3, behea



Bitxi-denda
Erloju-denda

Senén
1978

Tailer propioa

*Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte*

San Pelayo zeharbitidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA. Webgunea: joyeriasenen.com · Emaila: joyeriasenen@gmail.com

ARINKA OINETAKOAK



Andra, ume eta
gazteentzako zapatak

Sexto Centenario, 17
ERMUA (BIZKAIA)
943 174126

BONO DENDA

El armario
de Natalia

Zubiaurre 29
ERMUA





ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Matrikula zabalik

Ikastaroa urtarriletik ekainera

TALDEAK MAILAK ETA ORDUTEGIAK

	9:30-12:00	16:30-19:00	18:30-21:00
Hasiera Maila	•		
HABE 1.MAILA/B1	•	•	
HABE 2.MAILA/B2	•	•	•
HABE 3.MAILA/C1	•		•

Klaseak astelehenetik ostegunera

HABEren AZTERKETAK MAIATZEAN

Langabetuek eta lehen mailako ikasleek, prezio erdia

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
Tel: 943170925
euskaltegia@udalermua.net

Euskara eguna ospatu eta euskara egunero gozatu!

Eskolabarrin urtero bezala, aurten ere abenduaren 3an, Euskararen Eguna ospatzeko ekintza desberdinak egin genituen.

Ekintzekin azaroaren 24an hasi ginen. Egun horretan Euskara Batzordeko arduradunak, guztion artean osatuko genuen horma-irudia betetzeko, gehien gustatu zaigun euskarazko liburuen azalaren kopia edo marrazkia ekartzen joatea eskatu zigun eta egunak pasa ahala... betetzen joan zen! Ekintza polita izan zen, eta besteek ekarritako liburuak

irakurtzeko gogoia ere piztu zitzaigun!

Euskararen Egunaren aitakian eta Euskara mundura zabaltzeko asmoz, azaroaren azken astean 6.mailako ikasleek e-mailak bidali zituzten munduan zehar dauden Euskal Etxe desberdinei, Bartzelonakora, Londresekora, Parisekora... eta batzuen erantzunak ere jaso zituzten. A ze ilusioa!

Eskolako txikienek egunean bertan egindako kartel-txoeekin atera ziren eskolatik, baita aurpegia margotuta ere. Lehen Hezkuntzako

umeekin goizean zehar urtero errepikatzen dugun Ginkana egin genuen. Urtero errepikatu arren, beti sorpresa bereziren bat ezkutatzen du!

Arratsaldean, Udaleko Euskara Sailak eta ikastetxeek elkarlanean antolatutako jaietan Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5., eta 6.mailako ikasleek parte hartu zuten. Primeran pasatu genuen: karaokea, herri kirolak, bingoa... eta horrez gain, sari batzuk eskolara ekarri genituen. Bingoan 5.mailako Markel Fernandezek tablet bat lor-

tu zuen, gure zoramenerako eta, jaialdian Juanita Ibaibarriaga Literatur Lehiaketaren sari banaketa egin zen eta Igor Piñeirok 6.mailako artean ipuin onenaren saria lortu zuen.

Ekintza horiekin nahikoa ez... eta abenduaren 5ean Durangoko Azokara joan ginen. Primeran pasatu genuen eguna, eta San Martinen lortu genuen diruaren zati batekin, eskolako gela guztiei, beraien laguntza eskertzeko, opariak ekarri genizkien.

5. mailako ikasleak

San Martin azoka

Urtero bezala Euskal Birusa Elkartek antolatzen duen San Martin Azokan parte hartu genuen. 3.zikloko ikasleak, irakasleen, langileen eta gurasoen laguntzarekin, izaten gara azokako postuaren arduradun.

Azokako postuaz gain, Eskolabarrik Lobianon Euskal Dantzen jantzien inguruko erakusketa prestatzen du eta Lehen Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailakoek eskulan tailerrak izaten dituzte beheko eskolako eraikinean.

Egun horretan oso urduri egoten gara, postuan saltzen egotea erreza ez delako. Aldi berean, antolatuta dauden ekintza guztiak ikusten primeran pasatzen dugu.

Aurten lehen aldiz, postuan soberan geratu zitzaizkigun produktuak Ermuko Gurutze Gorrikoiei eman genizkien. Hango boluntarioek beharra duten familiek eskertuko zutela esan ziguten. Ea datorren urtean ere, zerbait eramatea lortzen dugun!

5. mailako ikasleak



ESKOLABARRI IKASTETXEKOEK IDATZITAKO ALBISTEAK

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
 Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

T XALAPARTA
 ABERNA

**Eta asteburuetan
 pintxoak, afariak
 eta bokatak!**

**Erdikokale 13
 (Ermua)**

**ENKARGYAK
 943 030 299**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Enter
 INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
 Tel. 943 17 90 37
 e-maila: enter-i@arrakis.es

MARIBI CARRILLO

- Zer lan ordutegi dekozu?

Goizeko 5:15etatik 12:00 edo 13:00ak aldera arte. Asteburuetan berandua amaitzen dot. Egunero 130 bat baserri eta taberna bazuetatik pasatzen naz.

- Laneko anekdotarik?

Baserrixetan makiña bat! Zelain, ogixe gustatzen jakon asto bat dau. Ogixe sartzeko buzoi bat dauke baserrixek; baina kontuz ez bada jartzen... astuek buzoi ez murturraz zabaldu eta ogixe lapurtzen dau!

- Noztik egitten dozu horretan bihera?

12 urte daroiaz ogixe banatzen. Aurretik beste lan batzuten ibilitekue naz. Gaztetan, eskolatik urtenda sestagile izen nintzen Renekin. Bertan 9 urte emon nittun. Mallabiko frontoien be kantxera ibili nintzen 5 bat urtez. Ostalaritzan be arittu izen naz makina bat lekuten, baitte zaintzaile lanetan be.

- Zer egiten dozu zure denbora librien?

Egixe esan ez dekot denbora askorik aste bittartien. Okindegixen aritziaz gain etxe batzutan be laguntzen nabi- eta. Astartero Plateruenara juten naz dantzara, Aiko dantza



Bost neba arrebetatik nagusixena. Eibarren jaiota. 45 urte die San Andres bezperan Mallebire etorri ziela. Bere eguneroko bihera, ogixe banatzie da Mallabia eta Berrizko inguruetatik. Zaletasunek berriz, dantzie eta kantue.

taldeko dantza tradizional saietara. Asteburuetan, barriz, dantzie, pasie... beti topatzen dot zeozer egitteko!

- Dantza zaletasune betidanik euki dozu?

Bai. Gaztetatik arittu naz dantzan.

- Eta nun ikesi izen dozu?

Plazan ikusten ikasi izen dot; gero pausu eta dantza barrixuek ikastaruetan. Dantzarako

aukerarik ez dot galtzen: ikastaror, erromerixa...

- Kantuen be aritzen zara...

Bai. Hori be betidanik gustau izen jata. Mendibil abesbatzien abesten dot sortu zanetik. Badie 6-7 urte...

- Kantau, edo girue da gustatzen jatzune?

Dana. Dantzie eta kantatzie gustatzen jataz, baitte horrek dakarrena: ondo pasatzie, jendie ezautzie...

- Asteburureko plan on bat?

Lagunekin erromerixaren batera juen eta parrandie egittie.

- Egin dozun azkena?

Abenduan 13en Plateruenan urte amaierako bazkari-erromerixa-parrandie.

- Ametsetako bat?

Boiseko Euskal Jaire juetie! Eta dana ondo badoie, bertan egongo naz datorren urtien! Hori da nire ametsetako bat eta espero dot lortzie.

- Egunero kale ein barik egitten dozun hori...

Biherra eta bihera! Ez dauket egunerokotasunien bestelako ezer fijoik.

- Oporretarako?

Edonora! Oporrak eukitzie eta konpañia ona da kontue. Nora gixienekue... inguruko jaixetan be, ni gustora!

- Jateko bat?

Mariskue; marisko dana.

- Edateko?

Ardo gorri naparra!

- Nola definitzen za?

Langilie. Lagunen lagune. Persona sentzillue.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre

Pub Dakota



Probaleku, z/g Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

KRABI
Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Sonia Souto, CityMap aplikazioaren sortzailea:

“Silicon Valleyn, ekintzailea ez bazara, ez zara inor”

YUZZ programa irabazi zuen Sonia Soutok CityMap aplikazioa sortzeagatik eta, sari bezala, Silicon Valleyn (Amerikako Estatu Batuak) joateko aukera izan du. Kaliforniako zonalde horretan munduko teknologia enpresa nagusienak kokatzen dira eta Soniak han bizitakoa kontatu digu bertatik.

- Silicon Valleyn zaude, goi mailako teknologiaren hiriburuan. Nolakoa da hura?

Izugarria da. Hainbeste informazio daukat buruan, ez dakidala nondik hasi; eta ezin dut dena kontatu, asko izan delako! Hemengo hezkuntza oso ezberdina da Europakoarekin alderatuz. Denek dute burua ekintzaile izatean. Silicon Valleyn demaseko konpetentzia dago norbere burua nabarmentzeko eta onena dela erakusteko. Lankideen arteko erlazioak laneko girora mugatzen dira eta inori ez zaio axola besteen bizitza pertsonala. Enpresen artean kolaborazio handia dago eta pertsona orok du balio bera, bere jatorria, adina edo bekaduna den... axola gabe. Espainian dena hierarkizatuagoa dago, eta erabakiak gerenteek eta talde-buruek bakarrik hartzen dituzte. Hemen, Espainian gertatzen denaren kontra, pertsona gazteak eta unibertsitarioak nahi dituzte enpresetan, berrikuntza eta teknika berriak eskaintzen dituztelako. Argi dagoena da hemen ekintzailea ez bazara, ez zarela

inor. Festaren batera bazoaz galdetzen dizuten lehen gauza da: “Eta zuk zein start up daukazu?”. Euren pentsamoldea ekintzailea da, zerbait sortzea, eta ondo irtenez gero, saldu eta inbertsore bihurtzea beste enpresei laguntzeko.

- Espero zenuena da?

Hemen dauden hainbat enpresei (Google, Apple...) buruzko dokumentalak ikusiak nituen eta horrelako zerbait izatea espero nuen. Harritu nauena izan da txikitatik erakusten dietela ekintzaile izaten eta saltzen.

- Zure burua Silicon Valleyn lan egiten ikusten duzu?

Ez. Hemen 10.000 dolar behar dira, gutxienez, hila-betea pasa ahal izateko; beraz, hemen enpresa bat sortzeko diru dezente eduki behar da. Enpresak hazteko berebizikoa bada bakarrik da gomendagarria hona etortzea, baina beharrezkoa ez bada, ez. Langile moduan ez zitzaidan inportako Silicon Valleyn lan egin, kurrikuluma bete eta errekonozimendua jasotzea, baina bizitza hemen ez da hain polita, lan egiteko besterik ez dira bizi.



- Zer gehiago egin duzu bidaia honetan?

Enpresetan egon gara, gehien bat, euren lan egiteko era eta metodologiak ikasten, eta ez dugu gehiagorako denbora larregi izan. San Frantziskoko Pier 39a bisitatu genuen, hango kaleetan ibili... ez da egunero San Frantziskon gauetz paseatzen!

- Zer da CityMap?

Hiri edo lurralde baten errekurtsio turistikoa eta kulturalak ezagutarazi eta balioan ipintzeko, mugikorretan erabiltzeko aplikazioa da. Hau da, horren bitartez, bidaiatzen zaudenean, toki bakoitzeko informazio guztia jaso ahal izango duzu momentuan zure mugikorrean, eta nora joan erabaki ahal izango duzu zure gustu, garraio mota, aurrekontu, klima eta iradokizunen arabera. Helburua turista



informatu, zuzendu eta orientatzea da bere bidaiari zehar sortu ahal zaizkion arazoak konpontzeko.

- Merkatuan egongo da edo proiektua da besterik?

Erabiltzaileen eskuetan egongo da, baina ez dakit noiz, izan ere, beste proiektu batzuetan nabil lanean eta CityMap-en elaborazioa motel doa.

Ekhi Velar



Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

Gabonak boluntarioki

Gabonak gainean ditugu, oraindik egun batzuk falta diren arren, argiek bi aste daramatzate egun horien berri ematen. Hilabete honetan bi gauza gertatzen dira batez ere, Olenzerok banatzen dituen oparien erosketak, janari erosketak, eta, erosketak, erosketak... Bigarren gauza da esku-zabaltasunaren gorespena. Egun hauetan denok egon behar dugu batera, denok onak izan behar gara, ez dutenenei denetarik eman behar zaie... Solidaritate eta laguntasuna saltsa denetan agertzen da.

Aurreko astean, abenduaren bostean, ospakizun berezi bat egoten da baina askok eta askok ez dute ezagutzen, nazioarteko boluntariotzaren eguna ospatzen da. Egun horrekin, boluntarioak diren pertsona guztiei omenaldi bat egiten zaie.

Egun hauetan, boluntariotza nahiak ere piztu egiten dira, kalean bizi diren horiei lagundu egin behar zaie, haur txikiak jostailuak batu behar dira eta abar handi bat. Nere helburua ez da nahi horren kritika bat egitea, ederto iruditzen zaidalako, urteko edozein momentu iruditzen zait aproposa boluntariotza lanetan hasteko, eta Gabonak, udako oporrak bezain onak dira mundu horretan sartzeko.

Honaino nik uste denok ados egon gaitzkeela, boluntariotza egitea eta besteak laguntzea ondo dagoela, alegia. Urtarrilaren zazpian gure betiko bizimodua hartzea eta boluntariotza laguntzea ez dago hain ondo, ordea. Hain zuzen ere, urte berriko lehenengo astea pasata badirudi inork laguntzarik ez duela behar. Inork ez



Ioritz Rasero

ditu kaleko pertsona haiek gogoratzen ezta bildutako jostailuak emango zaizkien haurrak, baina ziur egon ume horrek laguntza behar duela eta etxegabeko horrek baita ere.

Boluntariotza, solidaritatea, eskuzabaltasuna... ez da gu hobeto sentitzeko erabili behar, besteen onurarako baizik. Desgraziak urte osoan daude, ez Gabonetan bakarrik. Abenduak hiruan euskara 365 egunetan aldarrikatzen genuen, ea hurrengo urteko abenduaren bostean boluntariotza 365 egunetan izan dadila aldarrikatzen badugu?.

Boluntariotza, solidaritatea, eskuzabaltasuna... ez da gu hobeto sentitzeko erabili behar, besteen onurarako erabili behar da

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Enrailak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

ETXEBIZITZA ERRENTAN

Etxea alokagai Zubiaurre 24ean. © 648643715



Abenduaren 3an
Zorionak Alba zure 10. urtebetetze egunean! Muxu handi bat osaba eta izebaren partez!



Abenduaren 4an
Zorionak Aitzol! Jone eta etxeko guztien partez zure 6. urtebetetze egunean. Musu handi bat txapeldun!



Abenduaren 11an
Zorionak Urko zure 7. urtebetetzean familia guztiaren partez. Muxu handi bat. Maite zaitugu!



Abenduaren 12an
Zorionak Uxue eta musu handi bat familiaren partez!



Abenduaren 22an
Zorionak Irune! Oso ondo pasa eguna eta jarraitu zaren modukoa izaten. Muxu handi handi bat zure familia eta, batez ere, Markel eta Beñaten partez!



Abenduaren 19an
Zorionak Malen. Musu handi bat Jone, Aitzol eta Nerearen partez eta etxeko guztien partez. Ondo pasa!



Abenduaren 18an
Zorionak Ander! Horren bezain goa-poa izaten jarraitu eta ondo pasa ezazu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat eta belarrietatik tirakada familiaren partez!



Abenduaren 18an
Etxeko txikiak urte bat egiten du. Zorionak Olatz! Familia guztiaren partez eta batez ere Eiderren partez.



Abenduaren 20an
Zorionak Julen zure 2. urtebetetzean! Ondo pasa zure eguna eta musu handi bat etxeko guztien partez!



Abenduaren 21ean
Zorionak Juanjo. Etxeko guztien partez ondo pasa zure urtebetetze eguna eta hasi behar duzun etapa berri hori. Musu handi bat.

Hurrengo zenbakirako azken eguna: URTARRILAREN 21a



Aner, abenduaren 15ean eta Urko, abenduaren 18an
Zorionak Aner eta Urko familiaren partez! Muxutxus!



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

PUB YOMY

Zubiaurre kalearen bihotzean

mari asun
LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

**MALLABIA
1930**

Hiru! Ez zen egunero gertatzen zen gauza izan! Argazkian Jose Telleria Txurruka, Aurtenetxe-azpi baserriko semea, euren behi bakarretik jaiotako 3 txahalak eusten. Desberdintzea ez zela erreza ikusita, koloreetako zintta bana ipini zieten, zalantzarik ez izateko zein txahal eramana zioten errapera behi-amari. Bata etxean hazteko laga zuten; besteak auzora saldu. Sasoiko prentsan ere horren berri jaso zen. "La Voz"ek idatzita zekarren: "Una vaca del caserío Aurteneche de Verano de Ermua ha tenido en un solo parto 3 hermosas terneras, perfectamente constituidas y que muestran una excelente salud. Son muchos los curiosos que desfilan por el caserío".

**ERMUA
1944**

Izen-abizenik ez oraingoan, nahiz eta aurpegi ezagun asko egon bertan. Ikaragarriko ahalegina egiten dugu Argazki Zaharra sail honetarako izenak eta urte zehatza topatzen; honetan baina kale egin dugu, apropos gainera. Eskean gatoz, lagunok: txokotxo hau janzteko argazkiak behar ditugula-eta. Jakizue zahartzat kontsideratzen direla 25 urtetik gorako erretratuak eta publikoak egiten direnean ezinbesteko dela urtea eta bertan daudenen izen-abizenak jartzea. Beraz, zure etxeko album horretan ermuar guztiokin konpartitu nahi duzun irudi kuttunen bat baduzu, jarri gurekin kontaktuan: drogeten@gmail.com-en edo zatoz argazki horrekin Elexostera, Erdikokale 2-1. Momentuan eskaneatuko dizugu eta zurekin eraman ahal izango duzu berriro bueltan.

 **NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**



San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

Drogeteniituri, 229 zkia.

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA



Kaleak, dendak eta etxeak kolorez janzten dituzte argiek, telebistan zoriona eta poza dira nagusi, etxeak jaki eta edariz betetzen hasi dira... Gabonak gurean dira! Olentzerok prest dauka jada aurtengo ibilbidea, zakua opariz bete du eta haur zein nagusi zain daude ea zer jasoko duten. Denek, oster, ez dute Gabon izpiritu bera sentitzen eta badira Gabonak beste begirada batez ikusten dutenak ere.

Gabonetatik zer ez zaizu gustatzen?



Gabonetako izpiritua gal-tzen ari dela. Gaur egun, Gabon gauean adibidez, gazteak kalera irteten dira eta ez dira familiarekin geratzen. Lehen hori ez zen horrela izaten. Bestetik, lehen bizilagunak agurtzera joaten ginen eta, gaur egun, jendeak ez ditu bere bizilagunak ezagutu ere egi-ten.

Jesus Sanchez, 55 urte



Gabonetatik ez zait ezer gustatzen. Lehen gustatzen zitzaizkidan, baina senarra hil zenetik nahiko tristeak dira data horiek. Hala ere, seme-alabekin batzen naiz urtero eta Gabonak ospa-tzen ditugu. Ahal izanez gero, ordea, ez nuke ezer ospatuko.

Mila Hernandez, 67 urte



Egia esan berdin zaizkit Gabonak, ez zait asko axola. Nik ez dut ezer ospa-tzen eta bizi dugun krisiare-kin are gutxiago. Lehen bai, lehen ospatzen nuen modu-ren batean ala bestean, baina orain ez.

Hassan Ochen, 51 urte



Ez zaizkit Gabonak gusta-tzen, batik bat aita hil zenetik, eta badira urteak hori gertatu zela. Ahizpekin elkartzen naiz zerbait ospatzeko, baina ohitura delako batez ere, ez Gabonak gustatzen zaiz-kidalako.

Begoña Barrero, 51 urte

Tasio eta Sabino



-Gabonei buruz diotena ez da mitoa. Autobus gidaria ere barrezka dago!

ZINEA

3tik 5era
10etik 12era
17tik 19ra
24tik 26ra
31tik 2ra
 Ermua Antzokian.
 Hainbat film eta ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 8
Hilak 15
Hilak 22
Hilak 29
 Ermua Antzokian.
 Hainbat film. 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 4
Hilak 11
Hilak 18
Hilak 25
 Ermua Antzokian.
 Hainbat film. 17:00etan.

ERAKUSKETAK

Hilaren 19tik 2ra:
 Argazkiak: Sergio Nieves. Antolatzaile: Ermuko Udala.
 18etatik 20etara.
 Lobiano Kultur Gunean.

MUSIKA

Hilak 9:
 Opera proiektzioa:
 Pucciniren "Tosca".
 22:15ean. Ermua
 Antzokian. Sarrera: 8€




Hilak 17:
 Jazz-fusion kontzertua:
 Broken Brothers Brass
 Band. 20etan.
 Lobiano Kultur
 Gunean. Sarrera: 8€

Hilak 23:
 Kontzertua: Los
 Secretos. 22:15ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 15€



ANTZERKIA

Hilak 15:
 "A vueltas con la
 vida", Beatriz
 Carvajal-en eskutik.
 22:15ean. Ermua
 Antzokian. Sarrera:
 10€



Hilak 30:
 "En construcción",
 Adentro Teatroaren
 eskutik. 22:15ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 10€



UMEENTZAKO EKITALDIAK

Abenduaren 26tik urtarrilaren 4era:
 Gabonetako haur parkea:
 puzgarriak, jumping, jolasak, ludoteka, tailerrak, bideokonsolak, ohe elastikoak. 11 etatik 13tara eta 16etatik 20etara.
 Abenduaren 31n arratsaldean eta urtarrilaren 1ean egun osoa, itxita. Udal Kirolegian. Sarrera: 2€.

Hilak 5:
 Errege Magoen kabalgata. 18etan. Irteera: Sallabenteko ikastetxea.

Hilak 31:
 Haurrentzako antzerkia: "Quijote", Markelñe taldearen eskutik. 17etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4€

BESTELAKOAK

Abenduak 31:
 Oletzeroren kalejira. 18:00etan irtingo da Patxi plazatik.

Hilak 24:
 Gabon kantak plazara. 21:00etan. Patxi plazan.

Hilak 25:
 Extremadurako txarri boda. 10etatik. Extremadurako kultur zentruan.

Patxi López

**TXINDURRI
 TALDEA
 Tokian
 tokiko**

PRO

- ARRAINDEGIA
 - ITSASKIAK
 - ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA
 OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
 Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
 " 17 24 33 (etxea)
 Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
 ERMUA

**Infreñu
 Taberna**

Kardenal Orbe plaza
 943 174584
 www.infretaberna.com

ALBOKA

**MUSIKA
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

*Zorionak
eta
Eguberri On!*



Inplanteak - Aho kirurgia
Ortodontzia
Periodontzia
Zuriketak - Estetika
Odontologia orokorra
Protesiak

P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS
OCASO - DENTYRED - AZKARAN

Dra. Olatz García Arregui
San Pelayo 5, 1. Ermua (Bizkaia)

943 17 04 04

HEMENDIK AURRERA, KOTXEKO GILTZAK GALTZEA EZ DA ARAZOA IZANGO

DEITU ETA KONPONDUKO DUGU

943 17 69 76
607 33 11 77

KOTXEKO GILTZEN KOPIA



MOTA GUZTIETAKO GILTZAK,
DAKATEN MANDOA BARNE. BAITA MOTOR,
KAMIOI ETA ITSASONTZIEN GILTZAK ERE



GARAJEKO MANDOEN KOPIA

KARKASA ALDAKETA

KOTXEKO GILTZA ERABILTZEAGATIK
ZAHARKITUTA BADUZU, KARKASA
ALDAKETAREKIN BERRITU EGINGO DIZUGU



TOLESGARRI BIHURTU

KOTXEKO GILTZA HANDIEGIA DELA?
TOLESGARRI BIHURTU NAHI?
ORAIN ALDAKETA EGIN AHAL DIZUGU



ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es



Ferreteria **ANBOTO** Burdindegia